

Leioako lorategiak txakurren gorotzak biltzeko kontzientziazio-kanpaina baten protagonistak dira. Emaitzak oso positiboak ari dira izaten, baina, oraindik, pertsona batzuek ez diete kasurik egiten aholkuei eta beraien txakurren gorotzak bildu gabe jarraitzen dute.

Seguru zuk zure txakurraren gorotzak jasotzen dituzula, bai kaleetan zein parke eta lorategietan. Eta, hori dela eta, zorianak eman nahi dizkizugu eta hori egiten jarrai dezazun animatu nahi zaitugu. Hala ere, oraindik badago, itxura batean, honek guztiak kezkatzen ez duen jendea eta beraien txakurren gorotzak biltzen ez dituenak.

Gizabidezkoak ez diren jokabide horiek zigorrak jasoko dituzte, Animaliak Eduki eta Babesteko Ordenantza Arautzaileak ezartzen duenaren arabera: "animalien jabeak dagozkion neurriak hartu beharko ditu gorotzak ez daitezen geratu (...) bide eta plaza publikoetan, umeentzako parkeetan, lorategietan eta, orokorrean, apaindurarako eta/edo pertsonen joan-etorrietarako lekuetan". Hori ez betetzea arau-hauste arina da, eta, beraz, ekintza hori 601,01 eurora bitarteko isunarekin zigortuko da.



Zure txakurrak gorotzak bide publikoan edo lorategietan uzten dituenean, jaso itzazu poltsa batekin eta bota ezaizu, itxita, zaborretara. Horrela, eragozpen eta arazo ugari saihestuko diezu oinezkoiei, udal lorezainei eta parkeak eta lorategiak jolasteko erabiltzen dituzten neska-mutiko ugari.

Txakurra badaukazu, gogoan izan...

- identifikatuta eta errolatuta izan behar duzula;
- arriskutsua izan daitekeen txakurra edukitzeko, aurretiaz administrazio-lizentzia lortu behar dela;
- hiri-bide eta espazio publikoetan, bai eta higiezin kolektiboen alde komunetan ere, kontrolpean eta kate edo uhal batekin lotuta joan behar direla. Katea edo uhal egokia izan behar da animaliaaren ezaugarrietarako eta gehienez bi metroko luzera izan behar du;
- zu zara txakurrak eragin ditzakeen min, kalte edo eragozpenen erantzulea.

**Txakurrak ez daukalako errua.**

**Ahazturak ordaindu egiten dira.**

**Ez zaizu zerbait jasotzea ahaztu?**



KALEETAN ETA LORATEGIETAN, JASO ITZAZU ZURE TXAKURRAREN GOROTZAK